

KORRIKA KULTURALA

MARTXOAK 27, OSTIRALA

15.00: **Korrika txikia** abiatuko da Irubideko biribilgunetik. Elizalde eskolako eta Hautzaro ikastaolako ikasleek parte hartuko dute.

19.00: **Gazte korrika** abiatuko da Kataxulo Gaztetxetik. Herriko gazte taldeek hartuko dute parte. Ibilbidea: gaztetxea- Rafael Pikabea- Bekoplaza- kiroldegia- belutene- plaza.

22.00: **Mus txapelketa** kontzejupean. Sariak banatuko dituzte baita errepekan ere.

23.00: **Herriko bertso txapelketa**ko lehendabiziko kanporaketa, Amazkar tabernan. Parte hartuko duten bikoteak: Egoitz Zelaia-Iñigo Ugarte; Haritz Casabal- Manu Goigana; Aitor Errazkin-Arkaitz Oiartzabal "Xamoa"; Ander Lizarralde- Oskar Iburguren. Gai jartzailea: Esteban Martiarena.

MARTXOAK 28, LARUNBATA

16.30: **Haur jolasak** Doneztebe plazan

18.30: **Kontzertuak:** Ibargaingo **Nau** taldeak, **Ibargaingo Flauta taldea** eta **Pop-rock Orkestrak** hiru orduko saioa emango dute.

23.00: **Jon Miner eta Intxixu lotien banda**-ren kontzertua plazan. **Musika** jarriko dute kontzejupean, gaua girotzeko.

EGUN GUZTIAN ZEHAR: Elizalde auzoko tabernetan eta Doneztebe plazan **korrika tonbola**.

MARTXOAK 29, IGANDEA

05.09: **Korrika Oiartzunera iritsiko da**. Arraguatik sartuko da aurten euskararen aldeko aldarrikapena, Fanderiatik. Herriari bira eman ondoren, Gurutzetik Irun aldera joango da. Behin korrikak herria uzten duenean, gosaria izango da kontzejupean.